

## LITERATURA HIZKUNTZAREN ZERBITZUKO

Mayi Iza

Mayi Iza naiz, Hondarribikoa, eta euskara irakasten dut Donibane Lohizuneko Xantako kolegioan.

Nire esperientzia azaltzeko, lehenik gure ikastetxea aurkeztuko dizuet, ondotik liburuen irakurketa aipatuko dut eta azkenik literatur testuen erabilera euskara klaseetan.

### IKASTETXEA ETA IKASLEAK

Non-nola ari naizen jakin dezazuen: 11-15 urte arteko ikasleak ditugu (LH6-DBH3). Gurea ikastetxe publiko "elebiduna" da: ikasle gehienek ez dute euskararik egiten, ikasleen %5-10ek euskararen hastapenak lantzen dituzte astean bi orenez, eta ikasleen %25-30 "sail elebidunean" dira: astean hiru orenez euskara egiten dute, historia-geografia euskaraz ikasten dute, eta beste gai batzuk ere bai (gurean teknologia eta kirola).

Ikasle horiek ditut aipagai hemendik goiti.

Ikastetxea Donibane Lohizunen dago, baina inguruko sei herritako haurrak biltzen ditugu: Azkaine, Urruña (Oleta), Senpere, Sara, Ahetze, Getaria. Ikasleen hizkuntza maila ainitz aldatzen da familiaren eta herriaren arabera (%40 arras erdaldunak, %10 ari dira euskaraz; Saran gehiago besteetan baino), baina orohar aski apala da. Horrek zailtasunak ekartzen ditu literatur testuak lantzeko.

Hizkuntza ereduari dagokionez, Lapurteraz ari zaizkie etxean (%60k badute euskaldunen bat familia hurbilean, hizkuntza ez zaie arrotz), eta batua erabiltzen dugu eskolan, Iparraldeko aldaerak lehenetsiz. Bestalde, ikasle gehienek ez dakite gazteleraz. Horrek arras mugatzen ditu haiekin lantzen ahal diren testuak. Beharrik, badira sentsibilitate handiko sortzaileak (Eneko Bidegain, Asisko Urmeneta, Fernando Morillo...), hori konduan hartzen dutenak.

### LIBURUEN IRAKURKETA

Ikastetxeak diru guti du euskarazko materialaren erosteko, baina urteekin liburu batzuk biltzea lortu dugu: Jaurlaritzak emanak helarazi zizkiguten aspaldi; Ikas-ek liburuak argitaratu arau ikastetxeei ematen dizkie eta EEP-k dirulaguntzak banatzen ditu urtero

materialaren erosteko. Horiek hola, liburutegiko xoko batean euskarazko irakurgai andana bat bazen, baina inork ez zituen irakurtzen.

Duela zenbait urte armairu handi zahar bat lortu nuen. Garbitu, euskarako gelan ezarri, eta gure ikasleentzat egokienak iruditu zitzaizkidan lanak liburutegitik harat aldatu nituen. Erran dudan bezala, gehienek euskara maila aski apala dute, eta, gainera, ez dakite gazteleraz. Horrek arrunt ttikitzen du plazerez irakurtzen ahal dituzten liburuen multzoa: hizkuntza ulergarria duten gehienak ez zaizkie interesgarri, eta gaiak erakartzen dituelarik, hizkuntzaren aldetik zailegia zaie.

Zernahi gisaz, handik goiti eskuratu liburuak gelan berean altxatzen nituen, armairua emekimeki bete zen, eta aldi berean ikasleak euskaraz irakurtzen hasi ziren. Klaseko lana bukatzean, adibidez, edo lantzen ari ginena ongi menderatua zutelarik (orain ere hola egiten dugu). Eta zenbaitek etxerat eramane zituzten osorik irakurtzeko. Lehen urtean, hogei mailegu egin ziren; ordura arte, liburuzainaren arabera, bat ere ez. Sekulan.

Ondoko bi urteetan “Silence, on lit” egin genuen kolegioan. Arratsaldeko lehen kurtsoa aitzin 15-20 minutuz irakurri behar zuten denek, eta euskarako gelan zirenei euskaraz irakurrarazten nien. Bi urte haietan 150-200 liburu mailegatu ziren, gelan bortxaz irakurtzen hasi eta bukatzeko etxerat eramane. Eta irakurtzen zutenek hizkuntza maila argiki hobetu zuten. Alta, itzalak ere baziren: zenbait ikaslek ez zuten batere irakurtzen, eta gainera euskarako oren bakoitzean 15 minutu aise pasatzen nituen liburuzainarena egiten.

Eguneroko irakurketa sistema hori bertan behera gelditu zen gero, eta covid-a etorri. Urte eta erdiz ezin liburu haiek erabili, ikasleek irakurtzeko usaia galdu zuten, eta nik ere lan egiteko modua aldatu nuen.

Azken urte hauetan banaka gutiago eta taldean gehiago irakurtzen dugu. Oren batzu hartzen ditugu eta ulermena lantzen gelan denek elkarrekin: nor mintzatzen da, zer gertatu da, zure ustez zer gertatuko da, eta holako, momentu goxo bat pasatzeko helburuarekin eta sobera barnatu gabe. Ikasleek gogotik segitzen dute usaian.

## LITERATURA EUSKARA KURTSOETAN

Hizkuntza lantzeko materialari dagokionez, azken urteetan gauzak aldatzen ari dira (gero azalduko dute Ikas-ek zer egiten duen eta programak zertan diren), baina luzaz irakasle bakoitzak hautatu ditu klasean baliatzeko dokumentuak, eta horien ustiapena sortu du bere

ahalen eta ikasleen arabera. Euskal literatura ez dut sistematikoki lantzen, baina literatur testuak klasean erabili bai, egin ahala politak eta ikasleen heinekoak.

Adibidez, **gramatika** lantzeko:

- JA Ormazabal, Gezurretan → izen+izenondo / nor-nori + poema sortu
- Kalakan, Bai ama → agintera
- JA Ormazabal, Euri tanta (PiPoMarimo) → baldintza

**Testu mota** lantzeko:

- B Gandiaga, Dzu! -> poema idatzi
- P Lafitte, Ikas hor → antzerki bihurtu
- E Bidegain, Autoko miraila -> argudio testua (hiru adibide eta ondorioa)
- Ibarrart, Itsua eta sastrea -> narrazioa

**Gaiari** lotuak:

- JM Irigoien, CO2 (ingurumena) ; usoak joan eta sareak heda (ihizia)
- B Gandiaga, Oteizari (Arantzazu)
- Iban Zaldua, e-maila (teknologia berriak)

**Historiari** lotuak:

- Jean Elizalde, LVII.a gerlan
- Eneko Bidegain, Anbroxio
- Begoña Durruti, Ez da konprenitzen ahal gerla

**Euskalkia** lantzeko:

- Ligetx, Boneta eta txapela
- Cerquand, Ligiko zubia
- Gaur gurutzatu gara
- Albokari bat Parisen
- Gurasuk ez nabe matxe

Ororen buru, niretzat irakurtzen dudalarik, gutitan atzematen dut laneko baliagarri denik, baina hala ere irakaslea beti erne da buru xoko batean testu erabilgarrien menturan (adibidez, *Bertsolari* aldizkarian agertu "Lurbinttoko ohoinak" komiki laburra). Horiek hola, literatura sistematikoki landu gabe ere, ikasleek lau urtean hainbat idazle ezagutzeko parada dute, azaletik bada ere.